

## HERNANIKO BERTSO ESKOLA

### Bertsotan ikasi nahi duten gazteak ostiralean Biterira azaldu

Iaz 40 ume aritu ziren talde ezberdinetan. Bihar 17:00etan izango da bilera.



Bertso eskolakoak Askixun (Getarian), Otxoto buru dutela. Atzerantza: Apo, Urtzi, Huizi, Erdozio, Ezeiza, Peru, Joxe Anjel, Aizpuru, Arrieta, Agiñ eta Aitor.

Bertso eskola, udako oporrak pasata, ostera ere martxan hastera doa. Ostiralean Biterin egingo dute bilera arratsaldeko bostetan inguratzen diren guztiekin. Baldintza bakarrak "8 urtetik gorako gazteak izatea, eta bertsotarako grina puntua

eramatea" Estitxu Eizagirre irakasleak esan digunez.

#### PRIMERAKO GIROA

Azken urteetan primerako giroa lortu da Hernaniko bertso eskolan. Egiten diren ekintzetan egongo da kokka ziur asko: sagardotegira irteera, asteburu

pasak, Herriko Bertsolari Saioa, Eskolarteko Txapelketa...

Guzti honen ondorio aurtengo eskolarteko txapelketan, txikietan, Hernaniko taldea txapeldun gelditu izana edo helduetan Joxe Anjel finalera pasea.

Ai Txirrita bizirik balego... □

### Gaur da Txantxangorri elkartearen Sagardo Lehiaketa

Arratsaldeko 8etan hasiko da. Inguruko 15 sagardogile aukeztu dira.

TXANTXANGORRI elkartearen XVII. Sagardo Lehiaketa gaur arratsaldeko 8etan hasiko da. Afaltzeko izena eman dutenek puntu puntuan azaldu beharko dute elkartearen lorategira, berandu iristen denak ez baitu puntuaketan parte hartzerik izango.

#### SAGARDOGILEAK

Herrero (iazko irabazlea), Barcaiztegi (bigarren izan zena),

Petritegi, Eula, Altzueta, Rufino, Otsuenea, Oiarbide, Eizmendi, Iparragirre, Alberro, Zelaia, Bereziartua, Astarbe eta Txintxua izango dira aurtien.

Afaria: Bakailua "Bizkaina" erara eta saltsa berdean, saiheskia, Urbasako gazta eta kafea, kopa eta purua.

#### PUESTOEN ZOZKETA AURRERATU

Ehizerako puestoen zozketa

ordu laurden aurreratuko da sagardo lehiaketa dela-eta. Beraz 19:45 etan izango da 20:00etan izan ordez. □



## UDAL EUSKALTEGIA

### Izen ematea zabalik da irailaren 22ra arte

Urrats guztiak eta ikastaro bereziak ere aukeran dira.



Ikasleak iazko barnetegi batean.

HERNANIKO Udal Euskaltegiak ireki ditu ateak ikasturte berrirako izena emateko. 16 urtetik gorako jendearentzat dira klaseak, maila eta urrats guztietan. Iaz esaterako 210 ikaslek jardun zuten 16 taldetan 6 irakaslek gidatuta.

#### MAIZTASUNA

Euskalduntze mailetan astean 5 egunetan dira klaseak; 7. urratetik aurrera, ordea, aste batean bi eta hurrengoan hiru

egunez. Nola batzuk nola besteak bi orduko klaseak izango dituzte.

#### IKASTARO BEREZIAK

Sakontze taldeak (EGA izanagatik sakondu beharra daukatena), guraso eta merkatarientzako klaseak... Ordu-tegiak beharren arabera moldatuko dituzte. Izena emateko Biteri kultur etxean galdetu edo 943 331896 telefonora hots egin. □

### Gaur inauguratuko da udaletxeari buruzko erakusketa

Arratsaldeko zazpitan udaletxearekin areto nagusian.

INAUGURATU gaur eta zabaldu bihar egingo dute *Hernaniko Udaletxea: mende bat zutik* erakusketa. Kultur sailak eta Artxibo zerbitzuak antolatutako erakusketa honek, Hernaniko historiaren bi egun berezi gogorarazi nahi ditu: udaletxe zaharra txikitu zute-

neko 125. urteurrena eta berritzeko proiektua egin zuen Joaquin Fernández de Ayaragaray hil zeneko 100. urriaren 31 arte izango da zabalik. Ordutegia: astebarruan 18:00-20:00; larunbatetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; jaiegunetan 12:00-14:00. □

**brintza**  
BRINTZA, S.L.  
Juan de Urbietan 15  
Tel. 943 33 12 67  
Faxa.: 943 33 08 92  
20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASEGURUAK, INBERTSIOAK

**ETXE ONENAK, S.A.**

**GARAJE ITXIAK  
'OBLATOS'ETAN  
SALGAI**

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

## TXILLIDAREN MUSEOA ZABALAGAN

### Espainiako errege-erreginak badatoz

Hala baieztatu dute Zartzuela jauregitik. Bisitaren aurkako kartelak zabaldu dira.



Zabalagalako museoa. Piezetako bat Alemaniara joango da.

LARUNBATEAN egingo da Txillida-Leku museoaren inaugurazioa Zabalaga base-rrian. Ospakizuna 12:00etan hasiko da eta bertara etortze-koak dira Espainiako errege-erreginak (Juan Carlos I eta Sofia), Jose Maria Aznar Espainiako presidentea, Gerhard Schröder Alemaniako kantzilerra eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria.

**ESKULTURA EMAN**  
Txillidak "Berlin" eskultura emango dio Schroederri; hargatik egingo du inaugurazioa kantzilerra bertan dela. □

## IGERIKETA

### Larogei igerilari inguru ditu aurten Igerilari Elkarteak

Adinaren eta mailaren arabera, hiru taldetan daude banatuak.

HERNANIKO Igeriketa Elkarteak igerilari ondo hornituta hasiko du datorren denboraldia. Joan den astelehenan egin zuten urteko aurkezpena eta taldeko argazkia ere atera zuten.

#### HIRU TALDE

Igerilari Elkarteak hiru igeri talde prestatu ditu aurtengorako: gaztetxoak, gazteak eta nagusiak. Gero, nagusietan ere talde bat baino gehiago dago, mailaren arabera antolatuta. Entrenamenduetan ere dagoeneko hasiak dira. Igerilariak Kronikari esan diotenez, oraindik ez dakite denboraldia noiz hasiko den. □



Hernaniko igerilari koadrila osoa, gaztetatik zaharrena.

### Juanito Oiarbide 'Txilibitari' omenaldia

Datorren igandean egindo diote, Guardia Zibilak tiroz hil zuela 11 urte betetzen diren egunean.

EREÑOTZUARREK omenaldia egingo diote Txilibita bertako semeari. ETako militantea zen Juanito Oiarbide eta Irungo mugan kamioi barruan gordeta zihoala, harrapatu eta tirotean hil zen beste lagun batekin batera.

Goizeko zortzietan Onddi mendira joango dira, puntan

jarri zioten oroigarria. Ordu batean lore eskaintza auzoko Txilibita plazan eta ordubietan, herri bazkaria Urmia elkartearen. Sarrerak 2500 pezetan daude salgai Aralar, Onyi, Txili, Garin eta Ereñotzun bertan. Ateratako dirua fidantzak ordaintzeko izango da. □

**ZUEN GUTUNAK:**  
Larramendi, 11  
Faxa: 943 336306

E-Posta: kronika@topagunea.com  
Oharra: Gehienez 12 lerro makinaz.  
Bidali izen abizenak

## HERNANIKO KRONIKA

Herriko egunkaria  
Eskatu zure kioskoan.

## HERNANI HIZKUNTZAK (INGELESA)

### MATRIKULA IREKITA

☎ 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1  
20.120 HERNANI

#### ZORIONAK !

Haritz, Ibai, Javi, Jon, Amaia,  
Eluska, Laura, Andoni eta Xabi

CAMBRIDGE UNIVERSITY  
FIRST aprobataz egatik.

## HITZ BITAN

### ✓ PANGEA ESPEDIZIOA

Gaur abiatuko dira munduko bost kontinenteetako sakon unetara. Marijo Arrieta, Susi Elozegi eta Maialen Lujanbio gaur goizeko zazpiak aldera aterako dira Sondrikako aeroportutik Californiarako bidean. Itsas mailatik beherago dauden para-jeetara doaz. Australian ere Hernani izeneko herri bat badago, eta handik ere pasatzekoak dira.

### ✓ PRESOKAK

Zigorraren hiru laurdenak bete dituzten preso askatasuna eskatzeko kontzentrazio isila. Joxean Pagola Beltza, Pakito Lujanbio eta Xabier Arnaiz hiru laurdenak beteak dituzten herriko preso politikoak etxera ekartzeko eskatuko dute gaur arratsaldeko zazpitan Plaza Berrin egingo duten kontzentrazio isilean.

### ✓ MENDIRIZ-MENDI

Datorren igandean Erniora joateko izena emateko epea bihar bukatuko da. Gaztetxoek pare-pareko aukerako dute Ernietik buelta egiteko. Gazte aitzakian ordea, helduak ere joateko moduan dira. Iraileko igandean media festa leku bihurtzen da, trikitilari, bertsolari eta abarrekin. Prezioak: gaztetxentzat 300 pezeta eta helduentzat 600.

### ✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Francoren tropak orain 64 urte sartu ziren Hernanin. Aitzaki horrekin Gerra Zibilari buruz Joxebe Goyari eginiko elkarrizketa botako dute gaur 15:00etatik aurrera Molotoff irradian.

Irratiak hurrengo ostirala arteko epea (bihar zortzi) ematen die programa berriren bat egin nahi dutenei. Ordua hartzeko 943 556346 telefonora deitu.

### ✓ SASKIBALOA

Asteburuan inguruko eta Kataluniako gaztetxo onenak ikusteko aukera izan genuen kiroldegian. Alebinetan txapeldun *Minguella* Katalanak gelditu ziren *Askatuaki* 44 eta 36 irabazita (Askatuak Asier Pozas eta Iker fuertes hernaniarrek jokatzeko dute). Infantiletan, berriz, *Atletiko San Sebastian* izan zen garaile *Askatuak* taldea 57 eta 38 mepean hartuta (Askatuak Ivan Zapiain eta Iñigo del Valle hernaniarrek jokatzeko dute). □

## AGENDA

#### ERAKUSKETAK

*Kuba orain hamar urte.*  
Argazki erakusketa  
Zumardi jatetxean.

*Juan Ramon Perez*  
Oreretarraren Kuadroak.  
Txema tabernan.



Juan Ramon Perezen koadroa.

## ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▲ Taxiak: 943 550093  
▲ Udaltzaingoa: 943 333288  
▲ DYA: 943 464622  
▲ Autobusak: 943 556662  
▲ Anbulatorioa: 943 557750

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Bulnes  
Etxeberri auzoa  
☎ 943 557738  
► Gaez: Bulnes  
Etxeberri auzoa,  
☎ 943 557738

## IRAGARKI MERKEAK

► Jatetxe batean, garbitasunerako emakume bat behar da. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 943 55 64 81.

► Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizean 2 orduz. Arratsaldetan deitu. Tel.: 943 55 25 41.